



**EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN
ARTEAN HIZKUNTZA POLITIKAKO GAJETAN LANKIDETZAN JARDUTEKO 2017-2022
URTE BITARTEAN INDARRALDIA IZANGO DUEN HITZARMENARI BURUZKO TXOSTENA**

18/2021 LT - LGAKZ

I.- AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak goian aipatutako hitzarmenari buruzko txostena eskatu du. Espedientean honako agiri hauek daude:

- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseiluari aurkeztutako akordioa
- Hitzarmen-markoaren proposamena
- Oroitza eta oroitza osagarria
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Lege Aholkularitzaren txosten juridikoa

Oraingo gure legezketasun txosten hau igortzen dugu jarraian adierazten diren artikuluetan xedatukoarekin bat etorritz:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 b) artikuluan.
- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 artikuluan.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) artikuluan
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 8/2021 Dekretuaren 14.1 a) artikuluan.

II.- HITZARMENAREN AZTERKETA

A). Eskumenak

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.17 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela kultura arloan. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen irailaren 26ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren 14. artikulua arabera Kultura Sailari dagozkio hizkuntza-politikaren eta euskara sustatzearen inguruko egitekoak eta jardun arloak. Halaber, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 13.2 artikulua bat etorritik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, beste batzuen artean, zeregin hauek ditu:

- f) Euskal Autonomia Erkidego osorako plangintza orokorra prestatzea eta jarduera bateratuak gauzatzeko planak egitea.
- g) Hizkuntza-politikan eskumena duten botere publikoek lankidetzan aritzeko neurriak dinamizatzea eta bultzatzea.
- i) Hizkuntza normalizatzeko zereginetan, euskara normalizatzen eta araupetzen diharduten erakundeekin harremanak izatea eta, euskal hiztunen komunitate osoa kontuan izanik, beste lurralde batzuetako era guztietako erakundeekin ere aritzea.

Bestalde, Euskararen Erakunde Publikoaren eginkizunak dira, batetik, euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea, definitzea eta martxan jartzea; bestetik, behar diren finantza baliabideak bermatzea, bere egitasmoan ezarri dituen ekintzak edo obralari batzuekin hitzartu dituenak gauzatzeko. Bere eginkizuna betetzeko Hizkuntza Politika Proiektu bat definitu eta adostu zuen 2006ko abenduaren 21ean, eta 2018ko urriaren 19ko Biltzar Nagusiak 2018-2022 epealdirako Proiektu Estrategikoa onartu zuen eta bertan lehentasunak berdefinitu zituen epealdi horretarako.

B) Hitzarmenaren ezaugarriak

Hitzarmenaren xedeari dagokionez aipatzekoa da 1980ko maiatzaren 21ean Madrilen sinatu zela mugaz gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen-Markoa. Geroago, 1995eko martxoaren 10ean, Espainiako Estatuak eta Frantziako Errepublikak sinatu zuten mugaz gaindiko lankidetzarako Tratata. Tratatu honen xedea da, 1. artikuluari azaldutakoari jarraiki, ahalbidetzea eta sustatzea mugaz gaindiko lankidetzaren Espainiako eta Frantziako lurralde-erakundearen artean. Ildo horretatik, 2. artikulua ezartzen duenaren arabera, tratatu honi dagokionez, hitzarmenaren alderdi biak lurralde-erakundeak dira. Bestalde, 3. artikuluekin bat etorritik, lurralde-erakundeek mugaz gaindiko lankidetzarako ekimenak egiteko gaitasuna dute, bakoitzaren eskumen-esparru barruan eta elkarren arteko interesa dutenean. Horrez gain, azkeneko artikulua honek ezartzen du hitzarmena dela mugaz gaindiko lankidetzaren bideratzeko tresna juridikoa.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak, 2006ko abenduaren 19ko bilkuran, onartu zuen izenpetzea Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzeko, 2007-2010 epealdirako hitzarmen markoa. Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak ere onartu eta gero, 2007ko otsailaren 7an, Baionan erakunde biei arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zen.

2011ko urtarrilaren 31an, lehen hitzarmenaren balorazio positiboa egin ondoren, bi partaideek hizkuntza politika gaietan lankidetzaren jarduteko hitzarmena berri zuten, 2011. urtetik 2016. urtera bitartean indarrean izan zen bigarren hitzarmen bat izenpetuz.

2017ko martxoaren 27an, bi partaideek erabaki zuten hitzarmena berritzea, hasiera batean, 2017. urtetik 2022. urtera arteko 3. hitzarmen markoa izenpetuz. Halabaina, kontuan harturik, Espainiako Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 artikulua arabera, hitzarmenak gehienez ere lau urteko iraupena izan behar dutela, Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Erakunde Publikoarekin adosturik, hitzarmenaren iraupena egokitu eta 2021eko martxoaren 29ra arte izango zela, erabaki zuen.

Beraz, hitzarmenaren oinarria da 1995eko martxoaren 10ean Espainiako Estatuak eta Frantziako Errepublikak sinatu zuten mugaz gaindiko lankidetzarako Tratatu eta aurrekariak dira orain arte oso balorazio positiboa izan duten izenpetutako beste hiru hitzarmen-markoak.

D) Hitzarmenaren edukia

Hitzarmen Marko proposamena honetan ez da orokorrean aurretik sinatutako hitzarmenekiko aldaketa nabarmenik. Lehengo egitura bera mantendu da eta edukietan aldaketa gutxi egin da; egin diren aldaketak, batez ere testua ulergarriago izateko asmoarekin egin da.

Hitzarmenaren xedea aldatzen ez bada ere, lehenengo artikuluari idazkera berria eman zaio eta era honetan jaso da:

“Hitzarmen honen xedea da euskarari buruzko hizkuntza-politikaren arloko mugaz gaindiko lankidetzaren garatzea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak aipatu lankidetzaren berretsi ez ezik, erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzeko eta garatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dute, herri erakunde bakoitzaren erabaki autonomia eta funtzionamendu arauak errespetatuta.”

Bigarren artikulua elkarlanaren printzipioak edo irizpide nagusiak finkatzen ditu, eta horietan ere ez da aldaketarik egin.

Hirugarren artikulua alderdi sinatzaile biek elkarrekin gara ditzaketan jarduerak zehazten ditu. Honetan idazkeran aldaketak egin dira, baina edukian ez, lehenengo jarduerak mantendu baitira.

Laugarren artikulua elkarlana zehazteko prozedurari buruzkoa da, eta honetan ere ez dago aldaketarik: hitzarmena elkarlanerako marko eta erreferentzia izanik, urtero alde bien arteko elkarlanerako eranskina sinatu behar da.

Bosgarren artikulua hitzarmenaren iraupena eta jarraipena egiteko moduak arautzen ditu. Iraupenari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren

1eko 40/2015 Legearekin bat etorriz, hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du. Bestalde, hitzarmenaren jarraipena egiteko moduei buruz ez da aldaketarik egin.

Seigarren artikulua sinatzaile bien beste betebeharrak batzuk aipatzen ditu, eta honetan ere ez da aldaketarik egin.

Azkenik, lege-aholkularitzak proposatuta, 7. artikulua gehitu da, alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu izango dituen ondorioak jasotzeko.

III. ONDORIOA

Agerian da hitzarmenaren xedea alderdi sinatzaile bien eskumen-esparru barruan dagoela eta biok interesa dutela euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan lankidetzan jarduteaz.

Hori guztia dela eta, hitzarmen honen proposamena legediarekin bat dator.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.